Sin./Fdo.: ELENA ALVAREZ GONZALEZ 2023-11-16
EMAKUMEAK BABESTEKO ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE MUJER E INTERVENCIÓN FAMILIAR
Sin./Fdo.: MANUEL OSCAR SECO REVILLA 2023-11-16
GIZARTE INKLUSIOA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE INCLUSIÓN SOCIAL
Sin./Fdo.: MARÍA TERESA LAESPADA MARTINEZ - 2023-11-16
ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-11-23
GZko 23.gaia onartuta - Aprobado, asunto 23) de OD



ERABAKIA. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak (IFZ: G48242259) indarkeria matxistaren biktima den emakumeari berehalako harrera egiteko zerbitzua emateko 2021eko irailaren 19an sinatutako kolabarazio-hitzarmenaren aldaketa onartzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko irailaren 14ko Gobernu Kontseiluan, gai-zerrendako 2. gai gisa onetsi zen Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkarteak (IFZ: G48242259) sinatzekoa zuten lankidetza-hitzarmenaren testua, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei berehalako harrera-zerbitzua ematekoa.

Hitzarmena 2021eko irailaren 19an sinatu zen.

Gobernu Kontseiluak 2022ko abuztuaren 24an hartutako erabakiaren bidez (12. gaia), sinatutako hitzarmena aldatzea onartu zen.

2023ko ekainaren 19ko 3267/2023 Foru Aginduaren bidez, 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte luzatu zen hitzarmenaren indarraldia.

2023ko ekainaren 20an hitzarmenaren luzapena sinatu zen.

ACUERDO por el que se aprueba la modificación del Convenio de colabaración suscrito el 19 de septiembre de 2021 entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi (NIF G48242259) para la prestación del servicio de acogida inmediata de la mujer víctima de violencia machista.

En fecha 14 de septiembre de 2021 como asunto nº 2 del Orden del Día se aprobó en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia el texto del Convenio de Colaboración a suscribir entre la Diputación Foral de Bizkaia y Asociacion Instituto de Reintegración Social de Euskadi (NIF G48242259) para prestar servicio de acogida inmediata de la mujer víctima de violencia machista.

El 19 de septiembre de 2021 se suscribió dicho Convenio.

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de 24 de agosto de 2022 (asunto nº 12), se aprobó la modificación del Convenio suscrito.

Mediante Orden Foral 3267/2023 de 19 de junio de 2023 se prorrogó la vigencia del Convenio desde el 1 de julio de 2023 a 30 de junio de 2024.

El 20 de junio de 2023 se firmó la prórroga del Convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2023ko ekitaldian Berehalako Harrera Zerbitzua % 100ean beteta egoten da; horregatik urteko azken lauhilekoan plaza osagarri berriak ezartzeko beharra ikusi da eta, ondorioz, baliabideari atxikitako langileak ez dira nahikoa, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak eta haien ardurapeko seme-alabak ugaritu egin direlako eta pertsona horiekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak ugaritu egin direlako. Halaber, baliabidean dauden emakumeen denbora ere handitu egin da.

En el ejercicio 2023 el Servicio de Acogida Inmediata está ocupado al 100% habitualmente, es por ello que se ha visto la necesidad de implementar nuevas plazas complementarias en el último cuatrimestre del año, por lo que el personal adscrito al recurso es totalmente insuficiente dado el incremento de mujeres víctimas de violencia machista e hijos a cargo y las intervenciones socioeducativas a realizar con las mismas, así como el hecho de que también se ha incrementado el periodo de estancia de las mujeres en el recurso

Hori dela eta beharrezkoa izan da langile berriak kontratatzea (gizarte langile bat, eta hezkuntza-taldea handitzea, pertsona bat gehiago jarriz goizeko eta arratsaldeko txandan, 1 asteburukoan eta 4 gaueko txandan), eta lokal berriak alokatzea, ostatu-laguntzako plazak handitzeko (16 plaza berri).

Es por ello que ha sido necesario contratar nuevo personal (una trabajadora social, así como la ampliación del equipo educativo con 1 persona más en turno de mañana, 1 tarde, 1 fines de semana y 4 por las noches), y arrendar nuevos alojamientos para ampliar plazas de apoyo alojativo (16 nuevas plazas).

Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkartea, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren oniritziarekin, zerbitzu horiek ematen hasi zen 2023ko ireailare 1etik aurrera, eta prestazio horien kostua BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO da (218.907,36€)

Langileen gehikuntzak eta ostatu-plazen osagarriak 4 hilabeteko iraupena izango dute (2023ko iraila-abendua); izan ere, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiak 2024ko ekitaldian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak osorik berreskuratzeko zentro bat irekiko du, eta, beraz, Berehalako Harrera Zerbitzuaren okupazioa txikiagoa izango da.

La Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, con el visto bueno de la Dirección General de Inclusión Social comenzó a prestar dichos servicios desde el 1 de septiembre de 2023, y dichas prestaciones tienen un coste de DOSCIENTOS DIECIOCHO MIL NOVECIENTOS SIETE EUROS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (218.907,36 €).

La ampliación de personal, así como el complemento de plazas alojativas tendrá una duración de 4 meses (septiembre-diciembre de 2023), dado que la Dirección General de Inclusión en el ejercicio 2024 va a abrir una Centro de Recuperación Integral de las mujeres víctimas de violencia machista, por lo que la ocupación del Servicio de Acogida Inmediata será menor.

Horregatik, aldaketa honek, alde batetik, hitzarmenaren luzapenari eragiten dio, 2023ko ekainaren 20an sinatu baitzen (hirugarren xedapen-zatia), eta, bestetik, 2021eko irailaren 19an sinatutako hitzarmenaren zortzigarren klausulari.

Hitzarmenaren xede diren ekintzak 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak gehienez ere aurreikusi duen aurrekontua, aldaketa honekin, MILIOI BAT BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMOKOA da (1.580.784,36 €).

Es por ello que la presente modificación afecta por un lado a la Prórroga del Convenio, que fue suscrito el 20 de junio de 2023 (Parte Dispositiva Tercera) y a la Cláusula Octava del Convenio, suscrito el 19 de septiembre de 2021.

El presupuesto total máximo previsto para la realización de las *acciones objeto del Convenio en el periodo 1 de julio de 2023 a 30 de junio de 2024 a cargo de esta Diputación Foral de Bizkaia con la presente modificación es de UN MILLON QUINIENTOS OCHENTA MIL SETECIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUROS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (1.580.784,36 €)*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*Aurreikusitako aurrekontua honako urterokoei dagokie:*

*El presupuesto previsto responde a los siguientes anualidades:*

| HITZARMENTAREN LUZAPENAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DE LA PRÓRROGA DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA / AÑO | HASIERAKOA / INICIAL | ALDATUTA / MODIFICADO (A+) | EGUNGOA / ACTUAL |
| 2023 | 680.938,50 € | +218.907,36 € | 899.845,86 |
| 2024 | 680.938,50 € | 0 | 680.938,50 € |
| TOTAL | 1.361.877 € | +218.907,36 € | 1.580.784,36 € |

Beraz, hitzarmenari atxikitako langileak eta baliabide materialak aldatzen direnez, eta aldaketa horiek betebehar ekonomikoak areagotzen dituztenez, honako klausula hauek aldatzea proposatzen da:

Por tanto, dado que se modifica el personal adscrito al convenio, y los recursos materiales, y dichas modificaciones suponen un incremento de obligaciones económicas, se propone modificar las siguientes cláusulas:

*2021eko irailaren 19an sinatutako hitzarmenean: ZORTZIGARRENA.- Baliabide materialak eta giza baliabideak.-*

*En el Convenio suscrito el 19 de septiembre de 2021: OCTAVA.- Recursos Materiales y Humanos.-*

*2023ko ekainaren 20an sinatutako hitzarmenaren luzapenaren HIRUGARREN hizbaketa (luzapenaren prezioa), eta luzapenaren I. eranskina.*

*Estipulación TERCERA de la Prórroga del Convenio suscrita el 20 de junio de 2023 (Precio de la prórroga) y el Anexo I de la Prórroga.*

Azaldutakoa dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko Foru Arauko 17, 28, 39 eta 66. artikuluetan eta Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duenaren bosgarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoak emandako ahalmenak erabiliz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatu andreari honako proposamen hau egiten zaio, egokitzat jotzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkez diezaion, aztertu eta onets dezan:

En virtud de lo expuesto y vistos los arts.17, 28, 39 y 66 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, régimen y funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en uso de las facultades conferidas por la Disposición Adicional Quinta del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria en su párrafo nº 1 se eleva propuesta a la Ilma. Sra. Diputada Foral, Titular del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para que si lo estima pertinente, someta a la consideración de la Diputación Foral de Bizkaia, para su estudio y aprobación, la siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**LEHENA.-** Hitzarmen honen aldaketa onestea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK eta EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA ELKARTEAK 2021ko irailaren 19an sinatutako lankidetza-hitzarmena, Berehalako Harrera Zerbitzua ematekoa. Hona hemen aldaketaren zer-nolakoak:

Aldatu beharreko klausula honako hau da:

ZORTZIGARRENA.- Baliabide materialak eta giza baliabideak.

**BIGARRENA.-** 2023ko ekainaren 20an BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA EUSKADIKO GIZARTERATZE INSTITUTUA ELKARTEAK Berehalako Harrera Zerbitzua emateko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren luzapenaren testua aldatzeko baimena ematea.

Hirugarren hizbaketan aldatzen den klausula (luzapenaren prezioa).

**HIRUGARRENA. -** Sinatutako hitzarmenaren luzapenaren I eranskina aldatzea. Eranskin hori 2023ko eta 2024ko gastuen eta sarreren aurrekontuari buruzkoa da.

Hitzarmenaren eta luzapenaren aldaketa horretan (I. eranskina), aldatu diren jatorrizko hitzarmenaren eta luzapenaren alderdiak jasotzen dira.

**LAUGARRENA.-** BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK gehienez ere **MILIOI BAT BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EUO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (1.580.784,36 €)** zenbatekoa (BEZik GABEKO KANTUTASUNA) jartzeko konpromisoa hartu du, **2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean indarkeria matxistaren biktima izan den emakumeari berehalako harrera zerbitzua eskaintzeko.**

**PRIMERO.-** Autorizar la modificación del texto del Convenio de colaboración suscrito el 19 de septiembre de 2021 entre la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA y la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI para la prestación de un Servicio de Acogida Inmediata.

La cláusula objeto de modificación es la siguiente:

*OCTAVA.- Recursos Materiales y Humanos.-*

**SEGUNDO**.- Autorizar la modificación del texto de la Prórroga del Convenio de colaboración suscrito el 20 de junio de 2023 entre la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA y la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI para la prestación de un Servicio de Acogida Inmediata

La cláusula objeto de modificación es la estipulación Tercera (Precio de la prórroga).

**TERCERO. -** Modificar el Anexo I de la prórroga del convenio suscrito, relativo al presupuesto de gastos e ingresos, correspondiente a los ejercicios 2023 y 2024.

En la citada modificación del convenio y de la prórroga, cuyo texto se adjunta (Anexo I), se recogen los aspectos del convenio original y de la prórroga que se han modificado.

**CUARTO.-** La DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA se compromete a aportar la cantidad total máxima de ***UN MILLLON QUINIENTOS OCHENTA MIL SETECIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUOS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (1.580.784,36 €),*** CANTIDAD EXENTA DE IVA, a ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI para ofrecer un servicio de acogida inmediata de la mujer víctima de violencia machista en el periodo que abarca desde el **1 de julio del 2023 hasta el 30 de junio de 2024.**

| HITZARMENTAREN LUZAPENAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DE LA PRÓRROGA DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA / AÑO | HASIERAKOA / INICIAL | ALDATUTA / MODIFICADO (A+) | EGUNGOA / ACTUAL |
| 2023 | 680.938,50 € | +218.907,36 € | 899.845,86 |
| 2024 | 680.938,50 € | 0 | 680.938,50 € |
| TOTAL | 1.361.877 € | +218.907,36 € | 1.580.784,36 € |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| HITZARMENTAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DEL CONVENIO |
|---|

Hitzarmen hau sinatzeak sortuko dituen betebeharrak ordaintzera bideratutako baliabide ekonomikoak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretatik aterako dira.

Finantza-ekarpena, 2023-2024 ekitaldietarako aurrekontuetako partida honen kargura egingo da:

Organikoa: 0902

Programa: 232113

Ekonomikoa: 23708

Proiektuaren zk.: 2009/0041

BOSTGARRENA.- Aldaketa hau indarrean egongo da sinatzen den egunetik 2024ko ekainaren 30ra arte.

Hala ere, atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2023ko irailaren 1etik aurrera.

Berehalako Harrera Zerbitzua emateko hitzarmeneko gainerako estipulazioak 2021eko irailaren 19an sinatutako dokumentuan ezarritako berberak izango dira.

SEIGARRENA.- Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasun Saileko foru diputatua, aipatutako aldaketa sina dezan ahalmena ematea

Los recursos económicos destinados a sufragar las obligaciones derivadas de la suscripción de este Convenio procederán de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

La aportación financiera se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria correspondiente a los ejercicios 2023-2024:

Orgánico: 0902

Programa: 232113

Económico: 23708

Proyecto nº: 2009/0041

QUINTO.-La vigencia de la presente modificación se extenderá desde la fecha de su firma hasta el 30 de junio de 2024.

No obstante surtirá efectos retroactivos desde el 1 de septiembre de 2023.

El resto de estipulaciones del Convenio para la prestación del Servicio de Acogida Inmediata serán las establecidas en el documento suscrito con fecha 19 de septiembre de 2021.

SEXTO.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad para que proceda a la firma de la mencionada modificación.

Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuko burua/ La Jefa del Servicio de Mujer e Intervención Familiar. ELENA ALVAREZ GONZALEZ

*O.E/Vº Bº*

Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusia / La Dirección general de Inclusión Social. MANUEL OSCAR SECO REVILLA

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio. / De coformidad con el trámite precedente , elévese al Consejo de Gobierno.**

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua/ La diputada foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ERANSKINA/ANEXO

ALDATZEN DA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA ELKARTEAK (IFZ: G48242259) SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA, INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI BEREHALAKO HARRERA ZERBITZUA EMATEKOA

BILDU DIRA

Alde batetik, Mª TERESA LAESPADA MARTINEZ, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua.

Bestetik, JUAN LUIS FUENTES NOGALES (NAN: 22727697V), EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA ELKARTEAREN izenean (IFZ: G48242259); erakunde hau 2002ko azaroaren 25ean inskribatu zen, 359. zenbakiarekin, Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan.

Bi alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritzan onartu diote elkarri.

AURREKARIAK

I.- Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko irailaren 14ko Gobernu Kontseiluan, gai-zerrendako 2. gai gisa onetsi zen Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkarteak (IFZ: G48242259) sinatzekoa zuten lankidetza-hitzarmenaren testua, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei berehalako harrera-zerbitzua ematekoa.

Hitzarmena 2021eko irailaren 19an sinatu zen.

Gobernu Kontseiluak 2022ko abuztuaren 24an hartutako erabakiaren bidez (12. gaia), sinatutako hitzarmena aldatzea onartu zen.

II.- 2023ko ekainaren 19ko 3267/2023 Foru Aginduaren bidez, 2023ko ekainaren 1etik

MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI (NIF G48242259) PARA LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE ACOGIDA INMEDIATA DE LA MUJER VÍCTIMA DE VIOLENCIA MACHISTA

SE REÚNEN

De una parte, Dña. Mª TERESA LAESPADA MARTINEZ, Diputada Foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y DE OTRA D. JUAN LUIS FUENTES NOGALES, con D.N.I. 22727697V, en representación de la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI, con NIF G48242259, entidad inscrita con fecha 25 de noviembre de 2002 en el Registro Foral de Servicios Sociales con el número 359.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo.

ANTECEDENTES

I.- En fecha 14 de septiembre de 2021 como asunto nº 2 del Orden del Día se aprobó en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia el texto del Convenio de Colaboración a suscribir entre la Diputación Foral de Bizkaia y Asociación Instituto de Reintegración Social de Euskadi (NIF G48242259) para prestar servicio de acogida inmediata de la mujer víctima de violencia machista.

El 19 de septiembre de 2021 se suscribió dicho Convenio.

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de 24 de agosto de 2022 (asunto nº 12), se aprobó la modificación del Convenio suscrito.

II.- Mediante Orden Foral 3267/2023 de 19 de junio de 2023 se prorrogó la vigencia del Convenio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2024ko ekainaren 30era arte luzatu zen hitzarmenaren indarraldia.

2023ko ekainaren 20an hitzarmenaren luzapena sinatu zen.

III 2023ko ekitaldian Berehalako Harrera Zerbitzua % 100ean beteta egoten da; horregatik urteko azken lauhilekoan plaza osagarri berriak ezartzeko beharra ikusi da eta, ondorioz, baliabideari atxikitako langileak ez dira nahikoa, indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeak eta haien ardurapeko seme-alabak ugaritu egin direlako eta pertsona horiekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak ugaritu egin direlako. Halaber, baliabidean dauden emakumeen denbora ere handitu egin da.

Hori dela eta beharrezkoa izan da langile berriak kontratatzea (gizarte langile bat, eta hezkuntza-taldea handitzea, pertsona bat gehiago jarriz goizeko eta arratsaldeko txandan, 1 asteburukoan eta 4 gaueko txandan), eta lokal berriak alokatzea, ostatu-laguntzako plazak handitzeko (16 plaza berri).

Euskadiko Birgizarteratze Institutua Elkarteak, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren oniritziarekin, 2023ko irailaren 1etik aurrera hasi zen zerbitzu horiek ematen eta prestazio horiek BERREHUN ETA HEMEZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMOKO (218.907,36 €) kostua dute

VI.- Aurrekoa ikusita, beharrezkoa da hitzarmenaren luzapenaren prezioa eguneratzea, MILIOI BAT BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMOTAN (1.580.784,36 €) finkatuko baita, honela banatuta:

desde el 1 de junio de 2023 a 30 de junio de 2024.

El 20 de junio de 2023 se firmó la prórroga del Convenio.

III.- En el ejercicio 2023 el Servicio de Acogida Inmediata está ocupado al 100% habitualmente, es por ello que se ha visto la necesidad de implementar nuevas plazas complementarias en el último cuatrimestre del año, por lo que el personal adscrito al recurso es totalmente insuficiente dado el incremento de mujeres víctimas de violencia machista e hijos a cargo y las intervenciones socioeducativas a realizar con las mismas, así como el hecho de que también se ha incrementado el periodo de estancia de las mujeres en el recurso

Es por ello que ha sido necesario contratar nuevo personal (una trabajadora social, así como la ampliación del equipo educativo con 1 persona más en turno de mañana, 1 tarde, 1 fines de semana y 4 por las noches), y arrendar nuevos alojamientos para ampliar plazas de apoyo alojativo (16 nuevas plazas).

La Asociacion Instituto de Reintegracion Social de Euskadi, con el visto bueno de la Dirección General de Inclusión Social comenzó a prestar dichos servicios desde el 1 de septiembre de 2023, y dichas prestaciones tienen un coste de DOSCIENTOS DIECIOCHO MIL NOVECIENTOS SIETE EUROS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (218.907,36 €).

IV.- Visto lo anterior se hace necesario actualizar, por tanto el precio de la prórroga del convenio que quedará fijado en *UN MILLON QUINIENTOS OCHENTA MIL SETECIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUROS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (1.580.784,36 €)*, de acuerdo con el siguiente desglose:

| HITZARMENTAREN LUZAPENAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DE LA PRÓRROGA DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA/AÑO | HASIERAKOA/INICIAL | ALDATUTA/MODIFICADO | EGUNGOA/ACTUAL |
| 2023 | 680.938,50 € | +218.907,36 € | 899.845,86 |
| 2024 | 680.938,50 € | 0 | 680.938,50 € |
| TOTAL | 1.361.877 € | +218.907,36 € | 1.580.784,36 € |
| | | | |

Azaldutakoa dela eta, hitzarmenaren testua partzialki aldatu behar da baliabide materialei

Debido a lo expuesto, se debe proceder a la modificación parcial del texto del convenio suscrito

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta giza baliabideei dagokienez, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak gaur egun ordaintzen duen prezioari eragiten dio. Beraz, hitzarmenaren luzapena ere aldatu behar da, luzapenaren I. eranskinarekin batera (diru-sarreren eta gastuen aurrekontua).

Beraz, honako hauek aldatzea proposatzen da:

- Hitzarmenaren ZORTZIGARREN klausula. (Baliabide materialak eta giza baliabideak.

- Hitzarmenaren luzapenaren HIRUGARREN estipulazioa (luzapenaren prezioa) eta luzapenaren I. eranskina. (Diru-sarreren eta gastuen aurrekontua).

Adierazitako guztia kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Birgizarteratze Institutua elkarteak

ERABAKI DUTE

**LEHENA.-** 2023ko irailaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA EUSKADIKO GIZARTERATZE ERAKUNDEA ELKARTEAK 2021eko irailaren 19an sinatutako lankidetza-hitzarmena aldatzea, berehalako harrera-zerbitzua emateko. Zortzigarren klausula honela idatzita geratuko da:

**ZORTZIGARRENA.- Baliabide materialak eta giza baliabideak.-**

…

**BEREHALAKO HARRERAKO EGOITZA-ZERBITZUA, 202EKO IRAILAREN 1ETIK 2023KO EKAINAREN 30ERA:**

Berehalako Harrera Zerbitzuko plazak, araudiak ezartzen duen bezala, 24 dira, eta horrela dago xedatuta hitzarmenaren testuan.

2023ko irailaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean Berehalako Harrera Zerbitzuko plazen okupazio iraunkorraren ondorioz ostatu-laguntza emateko beste 16 PLAZA ezarri dira.

en lo referente a los Recursos Materiales y Humanos, y que afecta por lo tanto al precio que abona en la actualidad la Diputación Foral de Bizkaia, por lo que hay que modificar también la prórroga del convenio junto con el Anexo I de la Prórroga (Presupuesto de Ingresos y gastos)

Por tanto, se propone modificar:

- La cláusula OCTAVA del Convenio. (Recursos Materiales y Humanos.
- La estipulación TERCERA (Precio de la Prórroga) de la prórroga del covenio , y el Anexo I de la Prórroga. (Presupuesto de Ingresos y Gastos).

Que teniendo en cuenta todo lo expuesto, la Diputación Foral de Bizkaia y la Asociación Instituto de Reintegración Social de Euskadi

ACUERDAN

**PRIMERA.-** Modificar, con efectos retroactivos desde el 1 de septiembre de 2023 el Convenio de colaboración suscrito el 19 de septiembre de 2021 entre la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA y la ASOCIACION INSTITUTO DE REINTEGRACION SOCIAL DE EUSKADI para la prestación de un Servicio de Acogida Inmediata, quedando la redacción de la cláusula octava, como sigue:

**OCTAVA.- Recursos Materiales y Humanos.-**

…

**SERVICIO RESIDENCIAL DE ACOGIDA INMEDIATA DEL 1 DE SEPTIEMBRE DE 2023 AL 31 DE DICIEMBRE DE 2023:**

Las plazas del Servicio de Acogida Inmediata tal y como establece la normativa son 24, y asi viene dispuesto en el texto del convenio.

Del 1 de septiembre de 2023 a 31 de diciembre de 2023 se implementan 16 PLAZAS de apoyo alojativo ante la situación de ocupación permanente de las plazas del Servicio de Acogida Inmediata.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

…

GIZA BALIABIDEAK:

Hitzarmenaren gaia betetzeko, zerbitzuak pertsonen premiei banaka zein taldeka behar bezala erantzuteko lantalde bat izango du. Hori guztiori dela eta, berehalako harrera zerbitzuan gutxien-gutxienik ondorengo hauek izango dira:

- Zuzendari tekniko 1 (lanaldiaren %50).
- Berehalako harrerako zerbitzuaren arduradun bat. Arduradun horren ardura izango da zentroko hezkuntza-taldea zuzentzea eta koordinatzea, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuarekin koordinatzea ere (lanaldiaren %100).
- 2 gizarte-langile. (lanaldiaren %100).
- Psikologo 1. (lanaldiaren %100).
- 14 gizarte-hezitzaile, eguneroko bizitzako eginkizunetan. (lanaldiaren %100).
- Garbiketako/sukaldeko laguntzaile 1. (lanaldiaren %100).
- Etxeko 1 laguntzaile (lanaldiaren % 43)

2023KO IRAILAREN 1ETIK 2023ko ABENDUAREN 31RA ARTEKO ERREFORTZUKO LANGILEAK:

- Gizarte langile 1 (lanaldiaren % 100)
- 7 gizarte-hezitzaile, eguneroko bizitzako eginkizunetan (lanaldiaren % 100)

BIGARRENA.- 2023ko ekainaren 20an sinatutako hitzarmenaren luzapenaren HIRUGARREN HIZBAKETA aldatzea, 2023ko irailaren 1etik aurrerako atzeraeraginezko ondorioekin. Honela geratuko da idatzita:

> HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren luzapenaren prezioa MILIOI BAT BOSTEHUN ETA LAUROGEI MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMOKOA (1.580.784,36 €) da, BEZik gabeko zenbatekoa, 2023ko uztailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitarteko

…

HUMANOS:

Para el cumplimiento del objeto del Convenio el servicio contará con un equipo suficiente para garantizar la adecuada atención de las diferentes necesidades de las personas acogidas, tanto a nivel individual como grupal. A tal fin el servicio de acogida inmediata contará al menos con:

- 1 persona Directora Técnica (50% jornada)
- 1 responsable del servicio de acogida inmediata a cuyo cargo se hallará la dirección y coordinación del equipo educativo del centro, así como la función de coordinación con el Servicio de Mujer e Intervención Familiar de la Diputación Foral de Bizkaia. (100% jornada)
- 2 Trabajadores/as Sociales (100% jornada)
- 1 Psicologo/a (100% jornada)
- 14 personas educadoras sociales, en funciones de vida cotidiana. (100% jornada)
- 1 persona auxiliar de limpieza/cocina (100% jornada)
- 1 persona auxiliar doméstica (43% jornada)

PERSONAL DE REFUERZO DEL 1 DE SEPTIEMBRE DE 2023 A 31 DE DICIEMBRE DE 2023:

- -1 Trabajador/a Social (100% jornada)
- 7 personas educadoras sociales, en funciones de vida cotidiana. (100% jornada)

SEGUNDO. - Modificar, con efectos retroactivos desde el **1 de septiembre de 2023**, la **ESTIPULACIÓN TERCERA de la prórroga del convenio** suscrito el 20 de junio de 2023, que quedará redactada de la siguiente manera:

> TERCERO.- El precio de la prórroga del convenio asciende a UN MILLON QUINIENTOS OCHENTA MIL SETECIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUROS CON TREINTA Y SEIS CÉNTIMOS (1.580.784,36 €), cantidad exenta de IVA, en el periodo que abarca desde el 1 de julio de 2023 al 30 de junio de 2024.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aldian.

| HITZARMENTAREN LUZAPENAREN GUZTIZKO PREZIOA / PRECIO TOTAL DE LA PRÓRROGA DEL CONVENIO | | | |
|---|---|---|---|
| URTEA/AÑO | HASIERAKOA/INICIAL | ALDATUTA/MODIFICADO | EGUNGOA/ACTUAL |
| 2023 | 680.938,50 € | +218.907,36 € | 899.845,86 |
| 2024 | 680.938,50 € | 0 | 680.938,50 € |
| TOTAL | 1.361.877 € | +218.907,36 € | 1.580.784,36 € |

Hitzarmen hau sinatzeak sortuko dituen betebeharrak ordaintzera bideratutako baliabide eko-nomikoak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretatik aterako dira.

Finantza-ekarpena, 2023 eta 2024 ekitaldietarako aurrekontuetako partida honen kargura egingo da:

Organikoa: 0902

Programa: 232113

Ekonomikoa: 23708

Proiektuaren zk.: 2009/0041

Los recursos económicos destinados a sufragar las obligaciones derivadas de la suscripción de este Convenio procederán de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

La aportación financiera se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria correspondiente a los ejercicios 2023 y 2024:

Orgánico: 0902

Programa: 232113

Económico: 23708

Proyecto nº: 2009/0041

Ordainketa mugaeguneratuen bidez ordainduko da hilero, erakundeak egokia den justifikazioa aurkeztu eta gero.

Hileko ordainketak: EHUN ETA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (113.489,75€) 2023ko UZTAILETIK ABUZTURA.

El abono del precio se realizará en pagos mensuales vencidos mediante la presentación por parte de la entidad de la debida justificación.

Pagos mensuales de CIENTO TRECE MIL CUATROCIENTOS OCHENTA Y NUEVE EUROS CON SETENTA Y CINCO CÉNTIMOS (113.489,75€) DE JULIO A AGOSTO DE 2023.

Hileko ordainketak: EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA BERREHUN ETA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (168.216,59€) 2023ko IRAILETIK ABENDURA

Pagos mensuales de CIENTO SESENTA Y OCHO MIL DOSCIENTOS DIECISEIS EUROS CON CINCUENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (168.216,59€) DE SEPTIEMBRE A DICIEMBRE DE 2023.

Hileko ordainketak: EHUN ETA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (113.489,75€) 2024ko URTARRILETIK EKAINERA.

Pagos mensuales de CIENTO TRECE MIL CUATROCIENTOS OCHENTA Y NUEVE EUROS CON SETENTA Y CINCO CÉNTIMOS (113.489,75€) ENERO A JUNIO DE 2024.

HIRUGARRENA. - Sinatutako hitzarmenaren luzapenaren I eranskina aldatzea. Eranskin hori 2023ko eta 2024ko gastuen eta sarreren aurrekontuari buruzkoa da eta hitzarmena aldatzeko erabaki honi gehitu zaio, I. eranskinean.

TERCERO. - Modificar el Anexo I de la prórroga del convenio suscrito, relativo al presupuesto de gastos e ingresos, correspondiente a los ejercicios 2023 y 2024 que se adjunta al presente Acuerdo de Modificación como Anexo I.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRRENA.- Aldaketa, gainerako alderdi guztietan, Berehalako Harrera Zerbitzua emateko sinatutako Lankidetza Hitzarmenean ezarritakoaren mende geratuko da, eta 2021eko irailaren 19an sinatutako dokumentuan ezarritakoak izango dira.

Dokumentu hau irakurri ondoren, eta adostasunaren erakusgarri, hitzarmen-aldaketa hau formalizatu eta sinatu da.

Azken esku-hartzaileak sinatutako data hartuko da dokumentu honen eraginkortasun-datatzat.

CUARTO.- La modificación quedará sujeta en todos los demás aspectos a lo establecido en el Convenio de Colaboración suscrito para la prestación del Servicio de Acogida Inmediata serán las establecidas en el documento suscrito con fecha 19 de septiembre de 2021.

Leído el presente documento, y en prueba de conformidad se formaliza y firma la presente modificación de convenio.

Se establece como fecha de eficacia del presente documento, aquella en la que hubiera firmado la última persona interviniente en el mismo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

# ERANSKINA / ANEXO

**ENTIDAD:** IRSE **CENTRO:** INDARTUZ

**PRESUPUESTO DE ESTADO DE GASTOS E INGRESOS** **PERIODO:** 2023-24

(cifras en euros)

| A) GASTOS | | |
|---|---|---|
| **1. Gastos por ayudas y otros** | | 77.000,00 € |
| a) Ayudas monetarias (650) | | 77.000,00 |
| b) Ayudas no monetarias (651) | | |
| c) Gastos por colaboraciones y del órgano de gobierno (653,654) | | |
| d) Reintegro de subvenciones, donaciones y legados (658) | | |
| **2. Aprovisionamientos** | | 78.240,00 € |
| a) Compras de bienes y aprovisionami. para la actividad (601,602) | | 78.240,00 |
| b) Trabajos realizados por otras entidades para la actividad (607) | | |
| c) Variación (+,-) existencias bienes distinados a actividad (610) | | |
| d) Deterioro mercader, mat. primas y otros aprovisio (6931,6932,6933) | | |
| **3. Gastos de personal** | | 1.145.303,26 € |
| a) Sueldos, salarios y asimilados (640,641) | | 780.379,64 |
| b) Cargas sociales (S.Social a cargo entidad y otros) (642,643,649) | | 323.882,56 |
| c) Provisiones (644,7950) | | 41.041,06 |
| **4. Otros gastos** | | 266.141,10 € |
| a) Servicios exteriores | (62) | 264.341,10 |
| Arrendamientos y cánones | | 107.653,68 |
| Reparaciones y conservación | | 36.000,00 |
| Servicios profesionales independientes | | 11.749,92 |
| Transporte | | |
| Prima de seguros | | 1.500,00 |
| Servicios bancarios y similares | | |
| Publicidad, propaganda y relaciones públicas | | |
| Suministros agua, luz y otros | | 36.000,00 |
| **Gastos de estructuras (4,5%)** | | 71.437,50 |
| b) Tributos (631,634,636,639) | | 1.800,00 |
| c) Pérdidas x deterioro y varia provis operaci | (655,694,695,794,795) | ................ |
| d) Otros gastos de gestión corriente | (650,659) | ................ |
| **5. Amortización de inmovilizado** | (68) | 500,00 € |
| **6. Gastos financieros** | 66) | 1.600,00 € |
| **7. Gastos extraordinarios** | | 12.000,00 € |
| | TOTAL GASTOS | **1.580.784,36** |

| B) INGRESOS | | |
|---|---|---|
| **1. Ingresos entidad por actividad propia** | | 1.580.784,36 € |
| a) Cuotas de asociadas/os y afiliadas/os | (720) | ................ |
| b) Aportaciones de las personas usuarias | (721) | ................ |
| c) Ingresos de personas patrocinadoras y colaboradoras | (722,723) | ................ |
| d) Subvenciones | (74) | ................ |
| Subvenciones D.F.Bizkaia | | ................ |
| Subvenciones Gobierno Vasco | | ................ |
| Otras subvenciones | | ................ |
| e) Donaciones | (747) | ................ |
| f) Reintegro de ayudas y asignaciones | (728) | ................ |
| g) Ventas y prestaciones de servicio | (702) | |
| **2. Otros ingresos de la actividad** | | ................ |
| a) Por arrendamientos | (752) | ................ |
| b) Por servicios diversos | (759) | ................ |
| c) Otros | | |
| **3. Subvenciones, donaciones y legados capital traspasadas al excedente del ejercicio** | | ................ |
| a) Subvenc. capital traspasadas al excedente | (745) | ................ |
| b) Donac., legados capital traspasa al exced | (747) | ................ |
| **4. Ingresos financieros** | (76) | ................ |
| | TOTAL INGRESOS | **1.580.784,36 €** |



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 12U6-6YJB-PJ31-AHYG
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | | | |
|---|---|---|---|
| ERAKUNDEA: | IRSE | ZENTROA: | INDARTUZ |
| GASTU ETA DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA | | ALDIA: | 2023-24 |
| (kopuruak eurotan) | | | |

## A) GASTUAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. Laguntzak eta beste batzuk direla-eta eginiko gastuak** | | | | 77.000,00 € |
| a) | Diruz emandako laguntzak (650) | | | 77.000,00 € |
| b) | Diruzkoak ez diren laguntzak (651) | | | |
| c) | Lankidetzen gastuak eta gobernu-organoaren gastuak (653,654) | | | |
| d) | Diru-laguntza dohaintza eta legatuen itzulketak (658) | | | |
| **2. Hornidurak** | | | | 78.240,00 € |
| a) | Jarduerarako ondasunak eta hornidurak (601,602) | | | 78.240,00 € |
| b) | Beste erakunde batzuek jarduerarako eginiko lanak (607) | | | |
| c) | Bariazioa (+,-), jarduerarako gaiak eta ondasunak (610) | | | |
| d) | Salgai, lehengai eta beste hornidura batzuen narriadura (6931,6932,6933) | | | |
| **3. Langile-gastuak** | | | | 1.145.303,26 € |
| a) | Soldata, ordainsari eta antzekoak (640,641) | | | 780.379,64 € |
| b) | Gizarte-kargak (G. Segurantza eta beste, erakundearen kontura) (642,643,649 | | | 323.882,56 € |
| c) | Hornigaiak (644,7950) | | | 41.041,06 € |
| **4. Beste gastu batzuk** | | | | 266.141,10 € |
| a) | Kanpoko zerbitzuak | (62) | | 264.341,10 € |
| | Errentamendu eta kanonak | | | 107.653,68 € |
| | Konponketak eta kontserbazioa | | | 36.000,00 € |
| | Zerbitzu profesional independenteak | | | 11.749,92 € |
| | Garraioa | | | |
| | Aseguru-prima | | | 1.500,00 € |
| | Bankuko zerbitzuak eta antzekoak | | | |
| | Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak | | | |
| | Uraren, argiaren eta beste gai batzuen hornidurak | | | 36.000,00 € |
| **(*)** | **Egitura gastuak (4,5%)** | | | 71.437,50 € |
| b) | Zergak | (631,634,636,639) | | 1.800,00 € |
| c) | Narriaduraren galerak eta erag. horn. bari. | | (655,694,695,794,795) | ............... |
| d) | Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | | (650,659) | ............... |
| **5. Ibilgetuaren amortizazioa** | | | (68) | 500,00 € |
| **6. Finantza-gastuak** | | | 66) | 1.600,00 € |
| **7. Aparteko gastuak** | | | | 12.000,00 € |
| | | | GASTUAK GUZTIRA | 1.580.784,36 € |
| | | | Ekitaldiko soberakin positiboa | ............. |

## B) SARRERAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. Bere jarduera dela-eta erakundeak dituen sarrerak** | | | 1.580.784,36 € |
| a) | Kide eta afiliatuen kuotak | (720) | ............... |
| b) | Erabiltzaileen ekarpenak | (721) | ............... |
| c) | Babesle eta laguntzaileen sarrerak | (722,723) | ............... |
| d) | Diru-laguntzak | (74) | ............... |
| | BFAren diru-laguntzak | | ............... |
| | Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak | | ............... |
| | Beste diru-laguntza batzuk | | ............... |
| e) | Dohaintzak | (747) | ............... |
| f) | Laguntzen eta diru-kopuruen itzulketa | (728) | ............... |
| g) | Salmentak eta zerbitzuak ematea | (702) | |
| **2. Jardueraren beste sarrera batzuk.** | | | |
| a) | Errentamenduengatik | (752) | ............... |
| b) | Zerbitzu batzuengatik | (759) | ............... |
| c) | Beste batzuengatik | | |
| **3. Ekitaldiko soberakinari pasatu diren diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak** | | | ............... |
| a) | Soberakinari pasatutako kapital diru-lag. | (745) | ............... |
| b) | Sober.ari pasatutako kap. dohai. eta leg. | (747) | ............... |
| **4. Finantza-sarrerak** | | (76) | ............... |
| | | SARERAK GUZTIRA | 1.580.784,36 € |
| | | Ekitaldiko soberakin negatiboa | ............. |